

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 239. alea - 2019ko apirila

Milaka pauso norabide berean



DEBAKO HAURRESKOLA

Izen ematea zabalik!

ONGI
ETORRI



Ate irekiak APIRILAK 25 eta MAIATZAK 3 (18:00-19:00)
TEL. 943-19 20 81 / deba.deba@haurreskolak.eus

2019-2020 ikasturteko
matrikulazio epea:
maiatzaren 2tik 10era



Haurreskolak

AURKIBIDEA

4

GUTUNAK

“Amaitu da Kolorez Blai udalekueetan izena emateko epea”;
“Pasabidea guztiontzat”

6

KRONIKA

“Arte Eskola atzo eta bihar” lelopean egindako jardunaldiaren inguruko kronika

10

ALBISTEA

Itziar Toki Entitate Txikia aldatzea erabaki du Debako Udalak, nahiz eta itziartar gehienak ez dauden ados

13

HAUTESKUNDEAK

Maiatzeko hauteskunde kanpainari aurrea hartu nahian, galdetegi bat bideratu diegu alderdiei

16

KORRIKA

21. Korrika Deban, iruditan. Herriko 21 eragilek hartu dute aurten lekukoa

Urteko batzarra egin du Zuhatza Euskara Elkartek

Zuhatza Euskara Elkartek apirilaren 5ean egin zuen Urteko Batzar Orokorra. Batzarraren hasieran, elkartearen funtzionamendua azaldu zuten eta 2018ko ekimenen balorazioa eta aurtengo egitasmo ez edota aurrera begirako erronkez ere aritu ziren bileran bildutako bazkideak. Era berean, iazko balantze ekonomikoa eta aurtengo aurrekontua azaldu eta onartu zituzten.

Aurtengo bazkide kuota berdin mantentzea erabaki dute (25 euro urtean) eta, besteak beste, elkarteko zuzendaritza batzorde berria proposatu eta onartu da.



Itziar Arana izango da lehendakaria, eta Joseba Escudero arituko da lehendakariorde lanetan. Idoia Aulestiarte idazkaria eta Iñaki Elosua diruzainaz gain, batzordea lau bokalez osatuta egongo da: Naia Orbegozo, Jon Amutxastegi, Nagore

Dorronsoro eta Terese Larrañaga. Elkarteko bazkideek etxean jasoko dute batzarraren inguruko buletina.

Ekimenak antolatzeko bilera irekia

Bestetik, Zuhatzak datozen hilabeteotan hainbat kultur ekimen egin nahi ditu, eta jarduera horiek antolatzeko bilera bat deitu du maiatzaren 10erako (ostirala), arratsaldeko 19:00etan, elkartearen bulegoan. Bilera irekia izango da, edonork parte hartu dezake eta iritzi zein proposamenak ongi etorriak izango dira.

Zuhatza Euskara Elkartea

BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Ander Salegi

Publizitatea: Joseba Escudero eta Terese Larrañaga

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Amaitu da Kolorez Blai udalekuetan izena emateko epea



Kaixo, lagunok!

D a g o e n e k o amaitu da Kolorez Blai udalekuetan izena emateko epea.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu gudan jartzen duzuen konfiantzagatik; izan ere, azken urteetan bezala, aurten ere pozik gaude izan dugun harrerarekin eta izen-ematearen arrakastarekin. Aurten, berrikuntza gisa, izena internet bidez emateko aukera ere eskaini dugu eta erantzun ona izan du. Mila esker denoi!

210 bat hurrek eman dute izena

Kolore Anitzek antolatzen dituen eskal udalekuetan –garaiz matrikulatutako haur guztiak izan dira onartuak, apirilaren 17an jakinarazi genuen bezala–. Azken urteetan begirale lanetan gure artean izan dugun Manez Beitiak koordinatuko ditu aurten udalekuak, eta begiraleen taldea osatzeko lanetan arituko gara hurrengo egunotan.

Gogoratu: udalekuak uztailaren 1etik 26ra egingo dira, bi txandatan, umeen adinaren arabera banatuta. Gurasoentzako bilera informatibo bat egingo dugu ekainaren bukaeran, udalekuen inguruko xehetasunak eman, guztiok elkar ezagutu eta sor litezkeen

zalantzak argitzeko. Bilerarako deialdi zehatza laster jakinaraziko dizuegu, **Berriketan**-en hurrengo aleetan edota kartelen nahiz sare sozialen bitartez.

Ilusioz beterik gatoz, urtero bezala, uztaila koloreztatzera. Hilabete osoan zehar, kanta, jolas eta dantzekin herria alaituz ibiliko gara aurten ere; adin ezberdineko jendea, helburu bakarrarekin: euskaraz eta euskararekin gozatzea! Abestiak esaten duen bezala, "GORA KOLORE ANITZ!!". Uztailean ikusiko dugu elkar!

Zuhatza Kolore Anitz aisialdi taldea

**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Calbeton

JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

Seven Clovers
Irish pub

943 191 295

**AUKERA
INMOBILIARIA**

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447



Ander Salegi

Pasabidea guztiontzat

2018ko uztailearen 5ean, Deba ibaiaren bi ertzak lotzen dituen zubiaren zutabeetako batek eman egin zuen, eta itxita dago ordutik.

Zubi hau izan da Urazamendik auzoan bizi garen 300 pertsona inguruk medikuarenera, eskolara, erosketak egitera oinez joateko erabili dugun bide bakarra. Orain, auto partikularretan, orduero pasatzen den autobusean edo errepidearen arekan eta argi gutxi duen zuhaitzian zehar, martxoaren 31n egin genuen bezala, bi kilometroko ibilbidea oinez eginda baino ezin gara joan.

Zubia, Deba eta Mutrikuko udalena da, eta biek eta baita Aldundiak ere hartu zuten arazoaren ardura. Hasieratik, zubiaren egoera edozein izanda ere, ibaia gurutzatzeko aukera bermatuko zuen ordezkoko pasabidea eskatu genuen auzokook. Ejerzitoa ere etorri zen, eta ur gaineko pasabide bat jartzeko neurketak ere egin zituen. Proposamen hau bertan behera gelditu zen itsas-korronte eta mareak direla eta, edo hori da behinik behin esan digutena. Azkenik, Aldundiak, auzokideak obraren gainean eraikitako pasabidearen bidez igaroko ginela erabaki zuen, hau da, bi batean.

Auzoa herriarekin komunikatzeko pasabidea egiten ari zirela uste genuen, baina obra konplexu baten bitartez igaroko den pasabidea baino ez da bideratu. Ulertzen dugu, zubia ondasun baliotsua denez, berreraikuntza lanek izaera berezia izatea. Baina, ez dugu ulertzen 300 bizilagun ingururen eta Debako biztanle guztien ezinbesteko beharrari baino, zubiaren berreraikitzeari lehentasun handiagoa ematea.

Irailen hasi ziren lanak. Azaroan pasabidea izango genuela esan

ziguten. Ondoren urtarrila aipatu zuten, gero martxoa. Beno, pasabidea zabaldu dute. Hala ere, ez da egin esan ziguten oinezkoentzako pasabidea. 3 metro inguruko altuera izango duen pasabidea da; bertara bi aldeetan dituen eskaileak erabilia igotzen da, argia du, ez-labaingarria eta agian segurtasun kamerak izango ditu. Oinezkoentzat itxita egon ahal izango da, lanen beharreatatik edo segurtasunagatik, hainbat egunetan edo denbora zehaztugabea. Haizea badabil itxita egongo dela ere esan digute.

Herriko auzotar guztientzat zubia erabiltzeko zailtasuna suposatuko du honek, eta modu etenean erabiltzea, eta nola ez bere erabileraz ezinezkoa izango da mugikortasun urriko pertsonentzat, haurkotxeentzat eta min hartuta daudenentzat. Litekeena da haurrak bakarrik erabiltzeko, pasabidea segurua ez izatea. Aldundia autobusa hartzeko aukeran babesten da, baina orduero pasatzen den autobusen esku egotea ez da irtenbidea.

Aurreko guztiaren ondorio, datozen 2 urteetan, berreraikitzeak iraungo duela aurreikusten den denboran, auzokide asko herrira joateko bakartuta egongo gara, errepidean zehar doan bidea ez baita segurua.

Martxoaren 31n antolatu genuen ibilaldiak, Debara iristeko oinez egin behar dugun ibilbidea erakutsi nahi zuen, eragozpen dituen espaloi, argiteria, trafiko eta segurtasun faltarekin.

Zubiko lanak zenbat luzatuko diren kontuan hartuta, oinezko bidea aldatu egin behar dela uste dugu, igarobide seguru eta irisgarria egiteko eta garraioaren maiztasuna ere handiagoa izan behar da.

Eskerrik asko guztioi zuen parte-hartze eta babesagatik.

Urazamendik auzoko bizilagunak

“Maitatia” disko liburua aurkeztuko dute

Maiatzaren 3an (ostirala), iluntzeko 19:30ean, *Maitatia Txistularien doinuak* liburua aurkeztu eta kontzertua izango da Debako elizako klaustroan, Donostiako Udal Txistulari Bandaren eskutik.

Maitatia diskoa “Minus One” metodoan oinarriturik dago eta proiektuan parte hartu duten zenbait musikari ere izango dira klaustroan, zuzeneko emanaldian. Kontzertua amaitu ondoren, musikariekin batera aperitifa izango da klaustroan bertan.



Milatik gora lan jaso dituzte animaziozko film laburren nazioarteko lehiaketan

Ekainaren 19tik 23ra bitartean egingo da Animadeba Nazioarteko Animazio Zinemaldiaren lehen edizioa eta markak hautsi ditu lehiaketara aurkeztu diren animaziozko film laburren kopuruak. Guztira 1349 film jaso dituzte antolatzaileek; horietako 125 AEBetatik iritsi dira, 120 Frantziatik, 91 Irandik, 85 Erresuma Batutik, 63 Indiatik eta beste 63k jatorri espainiarra dutela adierazi dute. Martxoaren 22an amaitu zen nazioarteko lehiaketara lanak bidaltzeko epea.

Ekainean egingo den lehiaketak ordezkatu egingo du azken hamaika urteetan abenduan egin izan den Animadeba Debako Animazio Zinemaldia. Film laburrez gain, luzemetraiak, tailerrak, erakusketak, solasaldiak, kontzertuak... ere izango dira.

“Arte Eskola Atzo eta Bihar” jardunaldiak arte proiektu berri eta berritzaile bat eraikitzeke aukerak jarri ditu mahai gainean”



Debako Arte Eskolaren *atzoa* eta *biharra* interesgune hartuta, jende andana bildu ginen martxoaren 23an Agirre Jauregiko ispiluen gelan. Azken 50 urteetako bidea ekarri genuen geure artera lehenik, Eskola Esperimentalaren inguruko bideo labur batekin hasi eta anekdotaz eta argazkiz jositako aurkezpenarekin jarraituz ondoren, Baroja Collet eta Zuriñe Gredillaren eskutik.

Jarraian, Oteiza Museoko Didaktika departamentua martxan jarri eta berau zuzentzen diharduen Aitziber Urtaşunen ekarpen aberasgarriaz gozatzeko aukera izan genuen. Bertan, Oteizaren proiektu pedagogiko utopikoaren ekarpen interesgarrienak jaso eta hauek praktikan bideragarri egin dituen esperientziak ezagutu genituen.

Bazkalordua iritsi zenerako, Gazte Asanbladako zenbait kideren kolaborazioari esker prestatutako lunch eder bat konpartitu genuen. Hala, Koldobika Jauregik eman zion hasiera arratsaldeko saioari. Deba eta debar batzuk tarteko zeuden proiektuak aurkeztuz hasi zen, Deban kokatuta ditugun harrizko eta brontzeko zenbait eskulturen eraikitze prozesua erakutsiz. Ondoren, Urmara, natura eta artea modu transbertsal batean uztartzen dituen proiektuaren nondik norakoak ezagutu genituen.

Segidan, Azpeitian sortzen ari den Dinamoia proiektua ezagutu genuen, Azpeitiko kultur mahaiaren sorrera abiapuntutzat hartu eta Sortzaileen Gune berriaren oinarriak ezagutu arte.

Azpeitiak kulturalki izan duen eraldatze erraldoia ezagutzea itxaropentsua izan zen, herriko kultur gintzako talde guztien elkarlana barnebiltzen duen proiektu batez ari gara eta.

Iñaki Uriarte Arkitekto bilbotarrak itxi zituen jardunaldiak, objektu edota ekimen artistikoek lekua sortzeko duten gaitasuna oinarri hartuz, ibilbide interesgarria proposatu zigun, Euskal Herriko zenbait monumentutara beste begirada batekin inguratuz.

Jardunaldiek erakutsi ziguten arteak eta sorkuntza proiektuek zein eragin duten hezkuntza prozesuetan, paisaia eta espazioak balioan jartzeko gaitasunean, kolektiboak eraikitzeke bidean, eta abar luze bat.

Arte Eskola Bizirik-eko kideoi garbi geratu zitzaigun gure herriak badituela bide honetan proiektua eraikitzeke aukera asko eta interesgarriak, gure herriari kultur izaera propioa emango diotenak. Hala, aurrerantzean ere hausnarketak, esperientziak eta begirada ezberdinak mahai gainean jartzen jarraituko dugu, uste dugulako Debako Arte Eskolaren III. loraldi bat posible dela.

Bukatzeke, ekimen hau babestu duzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu, eta esan bigarren jardunaldiak prestatzen hasteko interesa duen oro ongi etorria izango dela. Edozein iruzkin edo proposamenerako hau da gurekin harremanetan jartzeko bidea: arteeskolabizirik@gmail.com.

ARTE ESKOLA BIZIRIK!!

Arte Eskola Bizirik taldea

Deban jokatuko dute Debabarreneko bosgarren orientazio raida

Maiatzaren 25ean (larunbata) jokatuko da eskualdeko bosgarren orientazio raida, Elgoibarko Morkaiko mendi taldeak antolatuta. Lehen aldiz, Deban egingo da hitzordua eta Euskal Herriko Raid Ligako proba izango da.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, probak bikoteka egingo dira, hiru kategoriatan: emakumezkoak, gizonzkoak, eta bikote mistoak. Sekzio ezberdinak antolatu dituzte, hala nola mendi bizikletan egin beharreko zatiak, trekking probak eta herri barruan jokatu diren orientazio probak, eta espeleologia proba bat ez ezik, "ustekabeko proba" batzuk ere izango dira. 10:00etan hasiko da raida eta gehienez ere zazpi ordutan amaitu beharko da, baina egin beharreko distantzia norberak bere neurrira erraz egokitu ahalko duela argitu dute arduradunek, raidak ez baitu ibilbide itxi bat oinarrian.

Proba amaitzean, sariak banatuko dituzte; lehenbiziko hiru postuetan

sailkatu diren partaideei eta Debabarreneko lehenengo bikoteari. Bertako produktuak eta kirol materiala ere zozketatuko da parte-hartzaileen artean. Bazkari batekin emango diote amaiera egunari.

Izena emateko epea zabalik dago jadanik (www.kirolprobak.com atarian). Informazio gehiagorako: <http://debabarrenaraid.wordpress.com>.

Bestalde, nagusientzako raida ez ezik, **modalitate familiar** bat ere antolatu dute, guraso eta seme-alabek elkarrekin egiteko moduko proba bat eskainiz. Bi ordu inguruko proba bat izango dela aurreratuko dute antolatzaileek eta ibilbidean puntuak emango dituzten jokoak ere egingo dira proba berezi bezala. Orientaziorako gaitasun apalekin ere egiteko moduko proba izango dela azaldu dute, eta familiak animatu dituzte parte hartzera. Proba hau 10:30ean hasiko da, azalpen tekniko batekin, eta 11:00etan jarriko dira abian parte-hartzaileak.

Hong Kongeko Boccia World Open-ean lehiatuko da Amagoia Arrieta

Maiatzaren 12tik 20ra bitartean Hong Kongen jokatu den Boccia World Open lehiaketan parte hartuko du Amagoia Arrieta debarrak.

Espainiako selekzioa Hong Kongen ordezkatu duten zazpi kirolarietako bat da, hain zuzen ere, Arrieta. Dordoka Kirol Elkarteko kidea da.

200dik gora haur Anes Arrinda krosetan



Giro paregabea izan zen martxoaren 30ean jokatuako Anes Arrinda haur krosaren 51. edizioan. 200dik

gora haur bildu ziren lasterketetan. Korrika egin, mokadua jan eta guztientzako sariak banatu zituzten gero.



OIHANA ESNAOLA

Enarak

Goizean irten dira enarak Afrikaldera, entzun ditut kantuan agurtzen, bihur dau pentsat, ez dira beldur... (Kauta: "Bidaiaria").

Aspaldi, "heldu dira enarak" esan zidan pozik lagun batek. Nik, "ederki!" erantzun nion zertaz ari zen gehiegi konturatu gabe. Ordurako, baina, etxeko leihotik begira neramatzan egunak, pareko etxeko teilatuean aurrera eta atzera zebiltzan txoriei begira.

Urtero, martxo bukaera eta apiril hasiera buelta horretan, eguraldi onarekin batera, negua, Afrika erdi eta hegoaldean igaro ondoren, bidaiia luzea egin eta gero, milaka eta milaka enara itzultzen dira gure zelai, haran, baserri eta herrietara, batzuk Errusiaraino! Zeinek ez ditu udako arratsalde eta iluntze aldean euli, tximeleta eta eltxo bila ikusi?! Askok eta askok jaio ziren baserri edo herrietara itzultzen dira gurekin udaberria eta uda igarotzera. Gurean indarberritu ondoren, askotan talde berean gau eta egun bidaiatuz, gehienak Kamerun eta Madagaskar aldera abiatzen dira, Euskal Herriko zirimiria ez baitute atsegin.

Ainara, ainhia, azpizuri, beletxiko, elai, enabera, enara, ernara, hegabera, hegoazpizuri, iñara, ipurzuri, kulentriña, zagaro... izen horietako batzuk hainbeste umeri jartzeak txori txiki horri diogun miresmena erakusten du.

Urtetik urtera, baina, bizi-baldintzak gogortzen ari zaizkie enarei, eta gero eta garestiago dute bizimodua. Zaindu dezagun bada, gure ingurua!

Oraindik gure artean ez dauden arren, laster helduko dira aurten ere!! Nik egunero begiratzen dut pareko teilatupera.



HERRIKOAK BERRIKETAN

DEBAKO ERRALDOIAK

Abuztuak 14, arratsaldeko 6ak. Hasi dira San Roke jaiak. Emozioa, umore ona eta parrandarako gogo. Giro paregabea herritar, udatiar, bisitari zein erromesentzat.

Txupinazoaren ondoren, musika nonahi: txistulariak, banda, erraldoiak eta gaiteroak...

Jende asko doa txistularien eta musika bandaren atzetik kalejiran. Beste asko, haurrak bereziki, gaiteroen erritmora dantzaten duten erraldioen atzetik doaz, noski.

Zein hunkigarria den umeen poz aurpegia ikustea, Izaga, Karlosmonte, errege-erreginak, Juan Carlos eta Salva dantzan dauden bitartean!

Baina... nor dago erraldoiaren azpian dantzan? Izan ere, EZ, ez dira robotak.

Beti egon dira hainbat lagun edo ezagunek osatutako taldeak erraldoiak hartu eta dantzatzeko prest. Adin guztietako jendea; ilusio eta gogo handiz,

gainera.

Urteetan zehar egon dira erreleboak konpartsan; batzuek taldea utzi dute, beste batzuk sartu dira, eta horrela mantendu ahal izan da jarduera herrian. Etorkizunean ere halaxe jarraitu beharko luke; etxeko txikienak aho zabalik uzten dituzten pertsonaia handi horiek baitira benetako protagonistak, ERRALDOIAK.

“Hasierako ilusioak eta gogoak hor daude, baina sasoa ez da berdina. Azken urteotan faltan botatzen da erreleboa”

Jarduera hori aurrera ateratzea posible izan da iraganean, gaur egun zein etorkizunean dantzatzeko prest gerturatzen diren boluntario guztiei

esker; eta, batez ere, erraldoiak ikusteko irrikan, kaleak eta plazak betetzen dituzuenoi esker.

Hala eta guztiz ere, azken urteotan faltan botatzen da errelebo hori. Nahiz eta hasierako ilusioak eta gogoak hor dauden, sasoa ez da berdina; gero eta zailagoa egiten da erraldoiaren azpian sartzea. Duela urte batzuk, erraldoiak pegatinaz josita irten ziren laguntza eske; eta ondorioz, hainbat gazte batu ziren taldera, baina ez da nahikoa izan.

Eta batzuek esango duzue: “Nik ez dut horretarako balio, ez dut erraldoia altxatzeko nahikoa indarrik, ez naiz oso trebea dantzan...”.

Taldean badago dantza klaseetara joan ez denik, solfeo ikasi ez duenik, edota erritmoa eramateko arazoak dituenik... baina ilusio eta gogo handiz erraldoiekin dantzatzera etorri dira, ondo pasatzera, irribarrerren bat edo beste ateratzera, edo txaloak jasotzera. Nork ez du hori gustuko? ANIMATU!!



Bisitariak erakargarritzat jotzen dute euskara, UEMAk egindako ikerketaren arabera



Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzako Mikel Urdangarin, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara Zerbitzuko Kristina Urrutia eta UEMAREN koordinatzaile Miren Segurola, Leitzaiko udaletxean egindako agerraldian.

Turismoak hizkuntzen erabileran eragina duela ohartuta, gaiari heldu eta euskara turismo eskaintzan nabarmentzeko eta babesteko lanean hasi zen UEMA duela pare bat urte. Lantalde bat osatu zuen, eta euskara eskaintza turistikoaren ardatzetako bat izatea ezinbestekoa iruditu zitzaion, monumentu historikoak, gastronomia edota baliabide naturalak nabarmentzen diren modu berean. Udalerri euskaldunen izaeraren ezauzgarri nabarmenena euskara dela erakustea udalez udal harrotasunez hartu beharreko erabakia zela ikusi zuen UEMAK.

UEMAko koordinatzaile Miren Seguroloren hitzetan, “turista eta bisitari asko jasotzen dituzten inguruetan, sektore batzuetan, euskara bigarren mailan uzteko eta erdarak nabarmentzeko joera ikusten da. Bisitariak, ordea, euskara ikustea eta entzutea eskertzen duela sinetsita, pertzepzioa zena datuetara ekartzeko beharra sumatu zuen UEMAK, eta horregatik erabaki zuen pasa den udan udalerri euskaldun batzuetan bisitariari inkestak egitea”.

Zehazki, zenbait udalerri euskaldunetako turismo bulegoetan, lande-txeetan eta ostatuetan bisitariak erantzundako 727 inkestaren datuak aztertu ditu UEMAK, bisitariak euskararekiko duten pertzepzioa ezagutzeko. Besteak beste, bisitarien %95ek ez du inolako arazorik izan euskararekin. Erdiek baino gehiagok (%54), berriz, euskararekin izan duten harremana atsegin dutela edo asko gustatu zaiela erantzun dute.

Ondorio nagusia: euskara erakargarria da bisitariarentzat. Honakoak dira bisitariak erantzundako inkestaren ondorio nabarmenenak:

Eremu euskalduna: bisitari gehienek badakite euskal hiztun asko bizi den gune batera datozela, eta espero dute euskararekin topo egitea.

Euskara, akuilu: bisitari talde handi batentzat etortzeko arrazoia ere hori izan da: euskaraz bizi den herri baten bila etorri dira.

Deseroso, oso gutxi: oso gutxi izan dira deseroso sentitu direnak. %95ek ez du inolako arazorik izan euskararekiko.

Askorentzat, atsegina: askorentzat, aldiz, atsegina izan da, eta asko gustatu zaiela nabarmendu dute.

Euskararekin, eroso: gehienak eroso sentitu dira euskararekin izan dituzten harremanetan. %85ek esker-tu egin du hizkuntza paisaian euskara aurkitzea.

Bisitarien zati handi bat, bertakoa: bisitarien zati esanguratsua Euskal Herriatik bertatik dator. Beraz, negozioaren ikuspegitik ere kontuan hartzeko moduko xede taldea da, premia zein eskubide linguistikoak dituena.

Ondorioa: euskara amu erakargarria da bisitariarentzat. Euskara bertara etortzeko faktore bereizgarria da bisitari askorentzat (%31), eta ez da etortzeko oztupoa gainontzeko ia guzti-entzat. Datuek erakusten dute turismoak gora egin duen eta bisitariak ugaritu diren lekuetan euskara ezkutatzek ez duela zentzurik bizikidetzaren ikuspegitik, ezta negozioaren ikuspegitik ere.



ITZIAR ARANA

Badira hiru aste

Bakoitzak badugu gure eguneroko errutina. Nire horietako bat da lanetik bueltan buzoia irekitzea. Faktura eta egunkariak gain, zirrara sortzen didan eskutitzik ez dut aspaldian jaso. Gogoan dut duela ez hainbeste, 2000. urtean, oraindik interneta eta mugikor-rrak gutxi batzuek bakarrik erabiltzen zituzten sasoiak, Eritreara eskuz ingelesez idatzitako kartak bidaltzen nituela eta haien erantzuna noiz jaso-ko hiru astez zain egoten nintzela. A ze poza, a ze ilusioa!

Akordatzeko naiz Gemma postariari ere ilusioa egiten ziola Eritreatik iritsitako paketeren bat eman behar zidanean. Ez pentsa ahaztu dudarik, Ekuadorren bizi izan nintzenean, etxera emaila bidali ahal izateko, asteko gorabeherak Word-ean idatzi eta disketean (bai, disketean!) gordetzen nituela, astean behin baikenuen internetera minutu gutxi batzuk konektatzeko aukera, eta ez uste hori edonoren esku zegoenik. Mugikorrek ere ugaltzen hasiak ziren, baina oraingo uholdearen lehenengo olatuak ziren haiek.

Orduan Zuhatzaren berri eskutitzez izaten genuen bazkideok, eta hile-ro-hilero *Berriketan* aldizkaria lagatzen ziguten buzoian. Gu baino gazte-agoak direnek BETI ezagutu izan dute euskarazko herri aldizkaria eskolan edo etxean, baina komunikatzeko modua horrenbeste aldatu den garai azkar honetan, oraindik buzoian jasotzen jarraitzen dugu bazkideok.

Aitortu behar dizuet Eritreatik iritsitako eskutitzak bezainbesteko ilusioa egiten didala hiru asteren ondoren, gaur ere, esku artean izateak.

Itziarko Toki Entitate Txikia aldatzea erabaki du Debako Udalak

Egia eta Arriola auzoak eta industrialdea egungo entitatearen lurraldetik kanpo lagatzea dakar aldaketak; Itziarko bizilagunek erabakiaren kontrako iritzi ez-loteslea eman dute galdeketa

Debako udalbatzak pasa den martxoaren 26an eman zion behin betiko onarpena Itziarko Toki Entitate Txikia (TET) aldatzeko proposamenari. Ezohiko osoko bilkuran hartu zuen erabakia, Debarren Ahotsa eta EAJren babesarekin (bost eta hiru boto, hurrenez hurren), eta EH Bilduko ordezkarien kontrako botoekin.

Orain lau urte eratu zen Itziarko Toki Entitate Txikia. Baina, 2015ean eraturitako egungo auzo udalean aldaketak egitea erabaki dute orain Debako Udaleko toki-gobernu batzordean dauden Debarren Ahotsak eta EAJk. Funtsean, Egia eta Arriola auzoak eta Itziarko industrialdea entitatetik kanpo lagatzean oinarritzen da aldaketa. "Era berean, -azaldu dute udal agintariek-, arautu egin da Auzo Udalaren eskumenak kudeatzeko modua eta aldatu egin da haren aurrekontua, aipatutako aldaketetara moldatzeko. Itziarko Toki Entitate Txikiak bere horretan eusten dio bere egitura politikoa-administratiboari".

Azaroan onartu zuen Debako udalbatzak TETaren aldaketa prozesua abian jartzea, proposamenari hasierako onarpena emanda ezohiko osoko bilkuran. Erabaki horren aurrean, Arriolako eta Egiako auzotarrek sinadura bilketa egin zuten eta auzo horietako bizilagunen



Ander Salegi

Debako Udalak itziartarren iritzi ez-loteslea jasotzeko galdeketa egin zuen apirilaren 7an.

%75ek Itziarko Auzo Udalaren parte izaten jarraitzea eskatu zuen.

Berrogeita hamar alegaziotik gora aurkeztu zituzten herritarrek, aldaketa txostenaren hainbat puntu zalantzan jarriz, baina proiektua onartu eta aldaketak egitea erabaki du Debako Udalak.

Erabakia hartu ondoren, iritzi-bilketa bat egin du Debako Udalak Itziarren, prozedura arautzen duen Foru Arauak hala eskatzen duelako. Iritzi ez-loteslea jasotzeko kontsulta edo galdeketa hori apirilaren 7an egin zen. Elorriaga, Mardari, Egia, Arriola, Itsaspe, Lastur, Arbiskoa, Endoia eta Itziarko hirigunean

bizi diren erroldatuak zeuden euren botoa ematera deituta; guztira 453 itziartar hurbildu ziren bozkatzera (831 biztanleko erroldaren %54,5), eta horietako 442k (%97,6k) ezezkoa eman zioten aldaketari. Baiezko sei boto izan ziren, eta bost zuri. Nolanahi ere, emaitza ez da loteslea.

Behin herritarren iritzia jasota, eta Debako Udalak aldaketa proposamena behin betiko onartu eta gero, Itziarko Toki Entitate Txikiaren aldaketa-espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali zaio, dagokion erabakia har dezan.

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

✉ Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

☎ Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

🌐 sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Haztik
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
tel.: 943 02 99 63
e-mail: haztik@gmail.com

k
kutxabank

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

LIGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Itziarko bizilagunek galdeketa emandako erantzuna nabarmendu du Auzo Udalak

Apirilaren 7ko galdeketa Itziarko bizilagunek izandako "erantzun aktiboa" nabarmendu du Itziarko Auzo Udalak; parte-hartze kopuru handia azpimarratu du, baita Debako Udalak planteatutako galderari eman dioten ezezko erantzuna sendoa eta argia izan dela aipatu ere.

Dena den, kritiko agertu da, "halako prozedura erabakigarri batek ezinbestean beharrezkoa lukeen gogoeta eta hedapenik gabe pentsatu den galdeketa" izan dela gogorraziz. "Lehendik datorren mamua izanik, txostenak muga eta zatiketa geografikoak irudikatzen ditu maparen gainean, baina auzo udala ez da eredu territoriala. Zerbitzu eta eskuduntza batzuk kudeatzen ditu auzoetan, lehenagoko zerbitzu eta ahalmenak Debako Udalaren eta erakunde nagusien gain direnean".

Galdeketa baldintzak eta ezaugarriak Auzo Udalaren ordezkariekin partekatu gabe ezarri izana gaitzetsi du, baita erakunde publiko batek herritarren iritzia jasotzeko galdeketa baten kudeaketa enpresa pribatu baten esku jarri izana salatu ere. "Hauteskundearen atarian dator galdeketa hau, lau urteko legealdiaren hondarrean, eta alderdien interes elektoralei erantzuten die".

Deba eta Mutriku arteko errepidea maiatzaren hasieran itxiko da



Hasiera batean Deba eta Mutriku lotzen dituen GI-638 errepidea apirilaren 26an ixtea aurreikusten bazuten ere, ez da gutxienez maiatzaren hasierara arte itxiko. Maiatzaren 3an edo beranduago itxiko dutela iragarri berri dute eta bost bat hilabetez egon liteke erabat itxita.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez, errepidea gutziti-

ko duten egunera arte, gaez behin-behineko mozketak egingo dira, 22:00etatik 6:00ak arte; mozketak horiek gehienez ordu erdiko iraupena izango dute eta gainontzeko orduetan zirkulazioa semaforo bidez kontrolatuko da.

Errepide berriak 10 milioi euroko aurrekontua du. Aurreikuspenak betez gero, lanak datorren urte hasierarako egongo dira bukatuta.

Eguneko Zentroko birgaikuntza lanak bukatu dituzte

Gizarte Zerbitzuetako lan esparrua eta erabiltzaileen arreta hobetzeko asmoz, eguneko zentro eta jubilatuen egoitzarako erabiltzen den eraikineko lehen solairuan birgaikuntza lanak egin dituzte.

Duela urtebete inguru, 1. eta 2. solairuetako tartak itxi ostean, lehen solairuko esparruaren birmoldaketa egin dute orain. Birgaikuntza lanak hiru hilabete epean egin dira eta 35.956 euroko kostua izan dute.

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

AZOKA
MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Odola emateko aukera egongo da maiatzaren 3an

Datorren maiatzaren 3an (ostirala) odola emateko saio berri bat burutuko da, arratsaldeko 17:00etatik iluntzeko 20:30era bitartean, Luzaro ikastetxean (Ifar kalean). Debako Odol Emaile Elkarteak antolatu du saioa eta bertan parte hartzeko deialdia egin du.

Odol-transfusioa eskubide bat baldin bada....



Odola emateak erantzukizun partekatua izan beharko luke

Erlezaintza ekologikoari buruzko hitzaldia izango da Arbil elkarteak

Erlezaintza ekologikoari buruzko tailerra eskainiko da maiatzaren 9an (osteguna), 19:00etan, Arbil jubilatuen elkartearekin aretoan. Gipuzkoako Erlezainen Elkartearekin batera Ion Mikel Ares arituko da hizlari. Arbil Jubilatuen Elkarteak, Udalak eta Lahar Elkargo Enpresak elkarlanean antolatutako saioa da.

150 zuhaitz landatu dituzte Casacampon



Pasa den martxoaren 26an, Zuhaitz Eguna ospatu zuten Casacampon Luzaro ikastetxeko 4. mailako ikasleek, Debanatura elkartearekin eta Debako Udaleko Ingurumen, Zerbitzu eta mantentze-lanen sailarekin batera. Aldaketa klimatikoaren ondorioei aurre egiteko keinu sinboliko gisa, 150 zuhaitz landatu zituzten guztien artean.

Jabari publikokoa den plantazio gunean, ihartutako zuhaitzak kendu eta erriberako basoa sortu nahian zuhaitz mota ezberdinak landatu zituzten; hala nola basararak, intusak, zuhandorrak, gorostiak, erramuak, gurpitzak, sahatsak eta elorriak. Zuhaitz horiek Foru Aldundiko Mendiak eta Natura Ingurune Zuzendaritzak eman zizkion Udalari.

III. Dantzari Txiki Eguna



Ander Salegi

Pasa den apirilaren 6an (larunbata), III. Dantzari Txiki Eguna izan zen Deban, Gure Kai Euskal Dantzari Taldearen ekimenez. Oñatiko Oñatz dantza taldea izan da aurtengo gonbidatua. Herria alaitzeko dantza saioak eta kalejirak ez ezik, herri bazkaria ere egin zuten dantzariak Aldats pilotalekuan.

G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 2/05/049
NIVEL 2

SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

HAUTESKUNDEAK, ATE-JOKA ZER BERRI MAIATZERA BEGIRA?



Espainiako Gorteetarako hauteskundeak apirilaren 28an egingo diren arren, **Berriketan** maiatzera begira jarrita dago jadanik. Maiatzaren 26an egingo dira Europarako, Udaletarako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeak. Hori horrela, alderdi eta indar politikoak hauteskunde-kanpainan maiatzaren 10etik 24ra bitartean murgilduko dira, eta kanpaina horri aurrea hartu nahi izan dio **Berriketan**-eko erredakzio taldeak.

Horretarako, ondoko orrialdeetan ikusiko duzuen galdetegia bideratu diegu maiatzeko hauteskundeetarako hautagai zerrendak aurkeztu dituzten indar politikoei. Debarren Ahotsa, EH Bildu, EAJ eta PSEko zerrendaburu izango diren pertsonen hitzak jaso ditugu.

Bestelako alderdi batzuei ere luzatu zaie, dena den, ale honetan euren erronka edo egitasmoen berri emateko gonbitea. PPren kasuan, adibidez, aldizkari honen edizioa ixterakoan jakinarazi zigun aurten ez duela herrirako hautagaitzarik aurkeztuko (2011n eta 2015ean ez bezala). Erabaki bera hartu du Ahal Dugu-k, Ezker

Anitzak eta Equok osatutako Elkarrekin Podemos koalizioak.

Horiek hala, ondoko orrietan gaur egun Debako Udalean ordezkartza duten hiru indar politikoen esanak bildu ditugu, baita PSErenak ere.

Laugarren hauteskontzi bat Itziarren

Bestalde, Itziarko Auzo Udalari ere tarte bat eskaini dio **Berriketan**-ek hauteskundeei dagokien atalean. Ez dio galdetegiarri erantzun, baina idatzi bat bidali du propio atal honetan argitaratzeko -hemen azpian duzue-.

Maiatzaren 26an, udalerrri gehienetan hiru hauteskontzi izango dira mahai bakoitzean: bat udal hauteskundeetarako, bigarrena batzar nagusietarako hauteskundeetarako, eta hirugarrena Europarako hauteskundeetarako. Itziarren, ordea, laugarren hauteskontzi bat ere izango da, Itziarko Toki Entitate Txikiaren auzo alkatea hautatzeko helburuarekin. Denon Herria plataformak Arantza Egaña Aldalur aurkeztu du auzo-alkategai.

UDAL HAUTESKUNDEEN EMAITZAK

2011

Alderdiak	Botoak	Zinegotziak
Alternatiba	938	5
EA	533	2
EAJ-PNV	650	3
Ezker Batua-Aralar	382	2
IHS	236	1
PP	63	0
PSE	110	0
Zuriak	76	0

Errolda: **4.293**
Abstentzioa: %29,84
Boto-emaileak: **3.020**
Baliogabeak: 32

2015

Alderdiak	Botoak	Zinegotziak
Debarren Ahotsa	1.259	5
EH Bildu	1.127	5
EAJ-PNV	667	3
PSE-EE	43	0
PP	20	0
Zuriak	73	0

Errolda: **4.311**
Abstentzioa: %25,38
Boto-emaileak: **3.217**
Baliogabeak: 28

Itziarko Entitate Txikia, auzo udal hauteskontzia:

Errolda: **815** Boto-emaileak: **585**
Denon Herria: **519** Zuriak: **48** Baliogabeak: **18**



Itziarko Auzo Udala

Datorren maiatzaren 26an izango diren udal hauteskundeekin batera, Itziarko Auzo Udalak aro berri bati hasiera emango dio. Lau urte hauetan jasandakoak gainditu ondoren, egindako lanaren loraldia ikusiko dugulakoan gaude. Erasoak eraso, Itziarko Auzo Udala erakunde modura antolatu eta sendotu egin da; eraketa lanean bere buruaren defentsa lanei tarte handi bat eskaini izan beharrak beste hainbat ekimen atzeratu baditu ere, datorren legealdia begira, herritarren parte-hartze eta auzolana bultzatzea dagokio. Auzo eremuan azpiegitura eta zerbitzu berriak eta hobekuntza behar ditugu, baina gure beharrak ez dira porlanez bakarrik aseko.


Herritarrez osaturiko ekimenetan oinarritutako erakunde bat izan behar du gureak, gizarte kohesioa bultzatu eta biztanleen inplikazioa bilatuko duena.

Erakunde guztiek dituzte beraien zeregin administratiboak, eguneroko aurrekontu, faktura eta inprimakiak. Auzo udalak ere bete beharko ditu tramite horiek guztiak, baina bere oinarriek sakonagoak behar dute izan, auzoetan sustraituak, herritarren inplikazioa bilatuz. Lau urte hauetan egituratu dugun erakundeak guztion ekarpenak jaso ditu bere baitan. Guztion babesaren sentitu izan du hainbat ataka gainditzeko momentuetan. Gobernantza izan dugu eredu, ezinezkoa litzateke beste era batera aritzea tokatu

zaizkigun larrialdiei aurre egiterakoan. Iraganeko aurreiritziak gaindituz joan dira. Batetik, oinarri sendorik gabekoak zirelako eta, bestetik, gure eguneroko jardunarekin atzean geratu direlako.

Hauteskunde berriek aro berriak zabalduko dituzte Debako udalerrian; Itziarko Auzo Udalak berritze prozesu horren bultzatzaile izan nahi du.

Frogatuta geratu da proiektuak, diru-laguntzak eta zerbitzuak bideratzeko eredu baliagarria dela auzo udala, emaitzak hor daude. Egindakoaren bidetik, herritarrek ahalik eta gehieneko saretuago baten alde jarduteko tresna bilakatu behar dugu amaitzera doan legealdian osatutako erakundea.



Pedro Bengoetxea Loyola

Zergatik erabaki duzu berriz ere alkatetzara aurkeztea?

Uste dudalako udal hauteskunde batzuei begira aukerarik onena tokian tokiko elkarte bat dela, eta Debarren Ahotsak proiektu horrekin bat egin duelako. Uste dut, 4 urte-

ko esperientziaren ondoren, Deba hobetuko duten ideiak eskaintzen jarrai dezakegula, pertsona gisa eta talde gisa.

Zein ekimen nagusi proposatzen dituzue?

Kiosko inguruan kultur erabilera izango duen eremu bat sortzea, hondartzako lehen lerroa hobetzea, kirol azpiegiturak hobetu eta aisialdirako guneak sortzea, aparkaleku-arazoak hobetzea eta, besteak beste, etxebizitza tasatuak sustatzea.

Euskara. Ezagutza eta erabileraren artean desoreka handia dago Deban. Horri buelta emateko bideen inguruan hausnartu duzue?

Udalak hurrengo lau

urteetarako euskararen erabilera normalizatzeko hizkuntza irizpideak aho batez onartu zituen. Gure konpromisoa irizpide horiek eguneroko lanean martxan ipintzea izango da. Herritarren euskararen erabilerak kezkatzen gaituelako ekintza planak antolatzen ditugu euskararen erabilera sustatzeko.

Itziarko Auzo Udala.

Itziarko Toki Entitate Txikiaren aldaketa.

Itziarko Auzo Udalaren epe luzerako helburuak planteatzeko mahai bateratu bat eratu dadila proposatzen dugu eta proiektu honen barruan barneratzea.

Hondakinak. Nola balo-

ratzen duzue orain arteko kudeaketa? (Egokia ez bada, hori hobetzeko neurri zehatzik baduzue esku artean?)

Hondakinak kudeatzeko zerbitzua hobetzea eta birziklatze-tasa areagotzea da asmoa. Ekipamendu publikoetan eraginkortasun energetikoa sustatzea. Udalerrria garbitzeari buruzko hobekuntza-kanpainak egitea.

Udal gobernua beste indar politikoren batekin osatzeko aukerarik ikusten duzue?

Bai. Debarren Ahotsak beste alderdi politikoekin akordioak lortzeko apustua egiten du, betiere debar guztientzat zerbitzuak hobetzeko helburuarekin.

DA. Hautagaien zerrenda: Pedro Bengoetxea, Ane Miren Egidazu, Enrique Jorge Salgado, Isidro Lamariano, Maria Luisa Albizu, Jose Maria Izaga, Aitor Salegui, Maria Carmen Beitia, Iñigo Aperribay, Cristina Aguirre, Angel Amilleta, Maria Reyes Galdona, Agustin Compañon.

ehbildu



Gilen Garcia Boyra

Zergatik erabaki duzu alkatetzara aurkeztea?

Debara bueltatu naizetik herria normalean baino hotzago sumatu dut, herri mugimenduan dinamika faltarekin eta maila politikoan norabiderik gabeko eztabaidetan murgilduta. Horri

buelta bat ematea litzateke asmoa. Bizitasuna!

Zein ekimen nagusi proposatzen dituzue?

Ekimen nagusia lan egiteko modua aldatzea da, hau da, interpelatu eta interpelatuak izateko oinarriak finkatzea. Ondoren, etorriko dira alor bakoitzean egin beharrekoak, baina gakoa debarron parte-hartzea da.

Euskara. Ezagutza eta erabileraren artean desoreka handia dago Deban. Horri buelta emateko bideen inguruan hausnartu duzue?

Horixe da Debako errealtatea, ni neu erdaraz aritu izan naiz urteetan erabat eroso; kontzientzia eta konpromisoa

barneratzea ez da lan erraza. Zalantzarik gabe, gure proiektuaren ardatzetako bat da euskararen erabilera sustatzea.

Itziarko Auzo Udala.

Modu demagogikoan darabilte gai hau hainbatek, eta arrazoizko irtenbideak topatzeko gogo gutxi ikusten dut. Gatazka identitario bat bilakatu nahi dute zentzuzko eskaria dena. Itziarko TET osatzen duten auzoetako herritarrek euren iritzia argi adierazi dute. Horrek ez al digu balio?

Hondakinak. Nola balo-ratzen duzue orain arteko kudeaketa? (Egokia ez bada, hori hobetzeko neurri zehatzik baduzue esku artean?)

Hondakinak kudeaketa ez da egokia inondik inora, Deban ez da nahikoa birziklatzen. Gogoeta egitea eta benetan adostutako birziklatze tasetara iristeko sistema eraginkorra ezartzea da dagokiguna. Baliabide naturalak mugatuak dira.

Udal gobernua beste indar politikoren batekin osatzeko aukerarik ikusten duzue?

Oraitxe bertan ez dut oso aukera erreala ikusten, gehienbat aipatutako gaietan EH Bilduren aurkako diskurtsoa oso erasokorra izan delako. Hala ere, hitz egiteko eta elkarlanerako prest gaude, ez dugu aukerarik aurretik baztertuko.

EH Bildu. Hautagaien zerrenda: Gilen Garcia, Itziar Irizar, Antxon Etxeberria, Nerea Arrizabalaga, Aritz Larrañaga, Antxoka Elorza, Ana Zabaleta, Ane Iriondo, Joxe Luis Aldasoro, Leire Iruretagoiena, Jon Ander Urain, Eider Robledo, Joseba Galarraga, Nagore Dorronsoro, Karlos Larramendi, Eneritz Tambo.



Iñigo Cambroneru Alcorta

Zergatik erabaki duzu alkatetzara aurkeztea?

Bai pertsonalki, baita nere lan taldeak ere, Deba eraldatzeko dugun gogoak, eta betiere Debaren etorkizuna izpiritu bateratzaile baten bitartez eraikitzen laguntzeko gogoak animatu nau

Debako alkatetzarako aurkeztera.

Zein ekimen nagusi proposatzen dituzue?

Gaur egungo behar eta gabeziak asetzerako eramango gaituzten ekimenak garatzea izango da gure ardatz nagusia. Zaharren Egoitzaren proiektua, hiriguneen egokitzapen eta hobekuntza eta energia efizientzia plan berriak bultzatzea, besteak beste.

Euskara. Ezagutza eta erabileraren artean desoreka handia dago Deban. Horri buelta emateko bideen inguruan hausnartu duzue?

Euskara gure programaren ardatz estrategiko bat da eta euskararen normalkuntza

lortzeko ekimenak landuko ditugu, Udalarekiko harremanetan ez ezik, debarren gizarte eta kultura kohesio tresna ere izan dadin.

Itziarko Auzo Udala.

Bertako kudeatzaile taldeak egindako lana indarrean jartzeko garaia da, baina Auzo Udalaren garapen zuzena lortzeko beharrezkoak diren baliabide eta tresnak jarritz. Horretarako, denok iraganeko desadostasunak alde batera utzi beharko ditugu.

Hondakinak. Nola baloratzeko duzue orain arteko kudeaketa? (Egokia ez bada, hori hobetzeko neurri zehatzik baduzue esku artean?)

Emaitzek kudeaketa frogatzen dutela uste dut. 2018an %61,78ko birziklapen tasara iristea lortu dugu debarren esfortzu eta kontzientziazioari esker. Herritarrek ondo erantzun duten arren, lan handia daukagu egiteke, baina bide one-tik goaz.

Udal gobernua beste indar politikoren batekin osatzeko aukerarik ikusten duzue?

Beste indarrekin akordio-eta iristeko prest gaude, beharrezkoa den gehiengo izango ez bagenu. Ez daukagu inorekin esertzeko arazorik. Izan ere, elkarriketa eta adostasuna gure gobernuaren ezaugarri bat izango da.

EAJ. Hautagaien zerrenda: Iñigo Cambroneru, Eneritz Gomez, Miren Arritokieta Esnal, Joseba Andoni Aizpurua, Alazne Txurruka, Edurne Rodriguez, Iñaki Mandiola, Gaizka Aizkoitia, Ariadna Paola Veliz, Mikel Lopez, Miren Josune Urain, Maria Teresa Iruetagoiena, Cristobal del Corte.



Marta del Pozo Alonso

Zergatik erabaki duzu alkatetzara aurkeztea?

Herritarrekin eta gizartearekin oso hurbileko harremana sortzen duen udal-mailako politikan aritzea lan zoragarria dela uste duen gazte sozialista naizelako, eta Debak ekonomia- eta gizarte-arloetan aurre-

ra egiteko konpromisoa hartu duen pertsona-talde baten buru izan nahi dudalako.

Zein ekimen nagusi proposatzen dituzue?

Gure hauteskunde-programa honela laburtuko nuke: enpleguaren, bizi-kalitatearen hobekuntzaren eta ahulenen duintasunaren babesaren alde sektore publikoko esparru guztietan dugun konpromisoa.

Euskara. Ezagutza eta erabileraren artean desoreka handia dago Deban. Horri buelta emateko bideen inguruan hausnartu duzue?

Euskara hizkuntza bizia eta dinamikoa izateko, eta aldaketarako eragilea, erakargarria... oraindik bidea dago

egiteko. Sorkuntzaren eta kulturaren esparruetan, ikusentzunezko edukietan eta mundu digitalean euskara sustatzea proposatzen dugu.

Itziarko Auzo Udala.

Sozialistak ados gaude 2018ko urrian Itziar Debako udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakunde bihurtzeko aldaketa justifikatzen duen txostenarekin, positiboa iruditzen zaigu planteatutako industria-poligonoaren eta lurraldearen egokitzapena.

Hondakinak. Nola baloratzeko duzue orain arteko kudeaketa? (Egokia ez bada, hori hobetzeko neurri zehatzik baduzue esku artean?)

Debabarrenan hondakin

gaikako bilketak 2020rako Europak finkatu zuen helburua gainditu du; %61,78ko birziklapenarekin, Deba emaitza onenak dituen bigarren udalerrria da. Kontzientziazio eta sentibilizatzen jarraitu behar da.

Udal gobernua beste indar politikoren batekin osatzeko aukerarik ikusten duzue?

Lehendabizi emaitzak eta, ondoren, bakoitzaren programak ikusiko ditugu, guregan-dik hurbilen dagoenarekin itunak egiteko. Sozialistok Udalaren gizarte-mailako agendari ematen diogu lehen-tasuna, beste edozein gairen aurretik. Hor beti aurkituko gaituzte laguntzeko eta itunak sinatzeko prest.

PSE. Hautagaien zerrenda. Apirilaren 24az geroztik, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kontsulta daitezke alderdi guztien hautagaien zerrendak. Dena den, **Berriketan**-eko tarte honetan, zerrendaburuari eman nahi izan dio lehentasuna PSEk.





21 lekuko-aldaketa

21. Korrikan.

Eskerrik asko!



APIRILAK 27, LARUNBATA

-9:30. **Gaztetxo**en 3x3 saskibaloitxapelketeta Debako kiroldegian.

-20:30. **Osto eta Ale** musikarien diskoaren aurkezpen-afaria, Itziaroko Hostalean.

APIRILAK 27-28

-Euskalsurf Surf Zirkuitua I, Euskal Herriko Surf Federazioak antolatutako txapelketeta. Deban.

APIRILAK 28, IGANDEA

-Talo Eguna Lasturren, Izarraitz Bizirik-en eskutik.

APIRILAK 30, ASTEARTEA

-19:00. "Memoria Historikoa" liburuaren aurkezpena, udal batzar aretoan.

MAIATZAK 1, ASTEAZKENA

-Langileen Nazioarteko Eguna.

MAIATZAK 3, OSTIRALA

-17:00. **Odola emateko saioa**, Luzaro ikastetxean.
-19:30. "Maitatia bistularien doinuak" diskoaren aurkezpen kontzertua Santa Maria elizan.

MAIATZAK 4, LARUNBATA

-17:30. Geoparkeko **bisita gidatua**: Debatik Zu-

maia **itsasontziz**. Informazioa: www.geoparkea.eus.

MAIATZAK 4-5

-Euskalsurf Surf Zirkuitua I, Euskal Herriko Surf Federazioak antolatutako txapelketeta. Deban.

MAIATZAK 5, IGANDEA

-11:00. Geoparkeko **irteera gidatua**: FLYSCH BELTZA. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.eus.

MAIATZAK 9, OSTEGUNA

-19:00. **Erlezaintza ekologikoari buruzko hitzalditailerra**, Arbil elkartearen. Hizlaria: Ion Mikel Ares.

MAIATZAK 10, OSTIRALA

-22:00. **Musika Kontzertua**: Hendrik Rover. Kultur Elkartearen.

MAIATZAK 17-18-19

-**Debarren Eguna** (egitarau berezia antolatutako du Jai Batzordeak).

MAIATZAK 18, LARUNBATA

-17:00. **Euskadiko sokatira txapelketaren finala**, Zumardian
-17:00. **Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketako jaurtialdia**, Lasturko bolatokia.

Plazatik Gaztetxera

-XVII. Plazatik Gaztetxera Bertso txapelketaren final handia Deban ospatuko da, apirilaren 27an (larunbata). Bi bertso saio izango dira: bata 13:00etan, eta bestea 18:00etan -tarrean, bazkaria-. Eibarko Oier Etxeberria, Ane Beloki eta Irati Alkantarilla arituko dira lehian. Ondoren, kontzertuak egongo dira 20:30ean: ZZIO, Debrass Band eta DJ Jotatxo. Goizeko 5:00etan, *Bertsogore*-a izango da, gaztetxea hustu artean.

KZguneko ikastaroak

-KZgunek arratsaldeko ordutegia izango du apirilaren eta goizez arituko da maiatzean. Hainbat ikastaro eskainiko dira bertan: LibreOffice Writer, musika aplikazioak zure Smartphonean, ikasi diseinatzen Canvarekin, Informazio gehiagorako: 943 02 36 29 telefono zenbakia edo www.kzguna.eus.

Ordutegi aldaketa Turismo Bulegoan

-Apirilaren hasieran aldatu zuen ordutegia Turismo Bulegoak. Astelehenetik larunbatera, goizez eta arratsaldez egongo da zabalik, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Igande eta jaiegunetan, aldiz, goizeko ordutegia izango du, 10:00etatik 14:00etara.




urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosj.net

API
N.º 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak



Taxi Alain Deba

UZ-ZK.: 3

www.alain.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus



ZAINZAKO BOTIKA
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **apirilak 26, 27, 28.**
maiatzak 6, 7, 8, 9.

Burgoa Zuazo:
maiatzak 10, 11, 12, 20, 21, 22, 23.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201
BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:
ZALDUEGI: apirilak 27 / maiatzak 4
BURGOA ZUAZO: maiatzak 11 eta 18

9:30 - 13:00



Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN



Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12



ERDI MAILA

Makinarien Elektromekanika
Mendepokotasun Egoeran dauden pertsonen arreta
Administrazio Kudeaketa
Soldadura eta Galdaragintza
Erizaintzaren Laguntza
Ibilgailuen Elektromekanika
Karrozeria

GOI MAILA

Metal Eraikuntzak
Haur-Hezkuntza
Automozioa

ESKAINNTZA PARTZIALEAN

Erizaintza Zaintza Osagarriak
Galdaragintza eta Soldadura
Gizarteratzea
Automozioa

www.meka-elgoibar.net 943 748 019 bulegoa@meka-elgoibar.eus



MASAJISTA

Tel.: 677 557 615

- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

28 URTEKO ESPERIENTZIA

DEBA

50 URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntzak
- Gauean tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

*Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik*

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Eibar BHI **Arte Batxilergoa**

Aurrematrikula maiatzaren 2tik 14ra



ATE IREKIAK
maiatzaren 2an
18:00etan



2019-20 Batxilergorako aurrematrikula Maiatzaren 2tik 14ra

BATXILERGOA (BH)

Gizarte Zientziak
Humanitateak

Osasun Zientziak
Zientziak eta Teknika

Artistiko Musikala

Giza eta
Gizarte
Zientziak

Zientziak

Artea



**ATE IREKIAK: MAIATZAREN 2AN, 18:30EAN,
INSTITUTUKO ARETOAN (MEKA ERAIKINA)**

943 899 316

013431aa@hezkuntza.net

